

Euskadiko udalen %60ak baino gehiagok krisiaren aurkako neurriak jarri dituzte martxan

- **Gizarte zerbitzuak eta lanaren sorrera dira udalek dituzten gastu-lehentasunak; izan ere, gizarte-laguntzen arloko eskaera ugari ari dira jasotzen, eta, aldi berean, gastu orokorrak eta jai, kirol eta kultur arloko gastuak murrizten ari dira.**
- **Udalek lana sustatzeko eta bertako inbertsioa babesteko programak jarri behar dituzte abian.**
- **Aurreikuspenen arabera, diru-bilketak %17ko jaitsiera izango du.**
- **Foru Ogasunen diru-bilketaren jaitsierari dagozkion aurreikuspenak bere horretan mantentzen badira, udalek 253 milioi euro inguru itzuli beharko lituzkete.**

Bilbon, 2009ko uztailaren 14an. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteko elkarteburuak, Jokin Bildarratzek, Euskadiko udalek krisiaren aurrean duten egoerari buruzko azterketaren laburpena aurkeztu du gaur goizean.

EUDELek egindako azterketa honen arabera, Krisiaren Aurkako Plana abian jarri eta lehenengo 6 hilabeteetan, populazioaren %60a baino gehiago hartzen duten Euskadiko udalek krisiaren aurkako neurriak hartu dituzte. Lurraldeka aztertuta, Gipuzkoa da herrialderik aktiboena neurriak hartzeko orduan; gero, Bizkaia eta, azkenik, Araba.

Hauek dira krisiaren aurkako planen ekintza-ildo nagusienak:

- **Gizarte zerbitzuak eta lanaren sorrera dira, gastu aldetik, 2009an lehentasuna duten arloak. Gizarte zerbitzuen esparruan, udal gehienek %20 eta %50 arteko hazkundera izan dute eskaerari dagokionez.**

- Udalek jaietako, gastu orokorretako, kiroleko edo kulturako gastuetan egin dituzte murrizketarik handienak.
- Gizarte zerbitzuak handitzeko beharrezana dago, batez ere Gipuzkoan eta Bizkaian. Kontsultatutako udal guztietan, prestazio ekonomikoko eskaeren kopurua handitu egin da; hain zuzen ere, Gizarte Larrialdiko Laguntzak %20 hazi dira, batez beste, 20.000 biztanletik gorako udalerrien %80an.
- Udalek premia eskatzen dute lana sustatzeko eta bertako inbertsioa babesteko programak abian jartzeko. Modu horretan, helburu jakin bat bilatzen da: udal bakoitza gai izatea bere udalerriko arazoak konpontzeko, baldintzatu gabeko fondoak erabiliz.
- Udalek 60 egun inguruan ordaintzen diete hornitzaileei, enpresetako diruzaintzek gehiegi sufritu ez dezaten.

Egoera finantzarioa

2008ko datuekin, hurrengo taulan agerian geratzen den bezala, ez dago egoera ekonomiko kezagarriarik, baina, 2009rako datuak aztertuta, argi dago doikuntza garrantzitsuak egin behar direla eta egoera finantzarioa goitik behera berrikusi behar dela. Izan ere, lurralde bakoitzak egoera finantzario jakin bat dauka.

	HASIERAKO AURREKONTUA	LIKIDAZIOA	ITZULI BEHARREKO ALDEA	ITZULI BEHARREKO ALDEA
ARABA	218.111.020,00 €	174.078.710,00 €	44.032.310,00 €	-%20
BIZKAIA	845.103.425,00 €	750.375.419,00 €	94.728.006,00 €	-%11
GIPUZKOA	458.747.770,00 €	404.432.720,00 €	54.315.050,00 €	-%12
GUZTIRA	1.521.962.215,00 €	1.328.886.849,00 €	193.075.366,00 €	-%13

Egoera honen aurrean, azpimarratu nahiko genuke, pasa den ekainan EUDELeko Gobernu Batzordea eta Lehendakariaren artean izandako batzarrean, Gobernuak

hurrengo Euskal Finantza Kontseilua baino lehen euskal udalen egoera ekonomikoari irtenbide bat bilatzeko konpromezua adierazi zuela. Helburua erakunde guztien artean adostutako formula bat lortzea izango zen, zergen jaitzierak udalen egoera ekonomikoan izango dituen ondorioak leuntzeko. Eudelen batzar horretarako dataren zain gaude.

Egoera horren aurrean, eta, aurreikuspenen arabera, aurten, diru-bilketak %17 jaitziko direnez, udalek 253 milioi euro inguru itzuli beharko dituzte.